

SALMENTA KANALA

Atal honetan gure salmenta kanalak azalduko ditugu, nola lortu erosleak gure salmentak handitzeko eta honela ganantzia gehiago lortzeko

Geure produktua arrakastatsua eta erabilgarria izan dadin, bezeroengan arreta jartzea dela onena uste dugu, horretarako, hasieran gure lokalean hartuko ditugu bezeroak eta bertan esposizio moduko bat edukiko dugu bezeroek geure produktua ikus dezaten.

Beste alde batetik, ofizina txiki bat ere edukiko dugu bertan, bezeroek dituzten dudak, enkarguak edo bilerak egin ahal izateko. Lokala ongi doituta edukiko dugu, inpresio on bat emateko bezeroari eta gure profesionaltasuna erakusteko.

Gaur egun internetak indar handia du, web gune bat zabalduko dugu jendeak internetetik gure produktua ikus dezaten. Web orrian, gure produktuaren helburuak eta alderdi positiboak azalduko ditugu zehatz mehatz, bezeroa konbentzitzen saiatuz. Web orrian lokaleko direkzioa eta gure telefonoa jarriko ditugu, gurekin kontaktuan jarri daitezen.

Bestalde, egiten dugun instalazio bakoitzeko, kotxearen atzean gure logoaren txapa bat jarriko dugu, produktuaren ezagutza handiagotzeko.